

SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA SENEGALEN:

DAKAR ETA THIÈS

TXOSTENA



CENTRO DE ATENCIÓN A GAYS Y LESBIANAS
GAY-ETA LESBAIEN ATZERIKO ZENTRUKA



IZENBURUA: Sexu- eta genero-aniztasuna Senegalen: Dakar eta Thiès.
EGILEAK: Cristina Rueda, Elena Olaortua, Amparo Villar eta Lala Mujika.
LAGUNTZAILEA: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirolaren Departamentua.
ITZULPENAK: Barthelemy Edouard Sarr, Garazi Eizagirre, Pilar Artaloytia eta Bego Montorio.
ESTILO ZUZENKETA: Ana Ureta.
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Lankopi.
ARGITALPENAREN DATA ETA TOKIA: 2020ko iraila. Bilbo.



Ezin da jatorrizko obraren edo balizko obra eratorrien erabilera komertzialik egin, eta haien banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berdinez egin beharko da.
<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/legalcode>

Txosten hau Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturiko *Sexu- eta genero- aniztasunagatiko gorroto delituak ikuspegi global batetik, III. fasea* proiektuaren barruan garatutako lanaren emaitzetako bat da.



ALDARTE, LGTBI+en arretarako zentroa
Berastegi 5-5. 48001 Bilbo
944237296-665734428
www.aldarte.org
<https://kooperaldarte.org>



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4
a. Aurretiko oharrak	6
ESKER-EMATEA	7
TESTUINGURUA: ETSAITASUNEZKOA ETA EZ SEGURUA	8
a. Legeria: Estatuko homofobia	10
b. Politika: borondate politikorik ez	10
c. Jendartea: gaitzespena	12
d. Hedabideak: gorrotoaren bozgorailuak	14
e. Erljioa: erradikalismoaren eragin	15
LGTBI KOLEKTIBOAREN EGOERA: JAZARPENA ETA IKUSEZINTASUNA	17
ASOZIAZIONISMOA	19
EMAKUME LESBIANAK ETA BISEXUALAK: SEXUALITATEAREN UKAZIOAD	21
PERTSONA LGTBIEKIKO AURREIRITZIAK	23
GORROTOZKO DELITUAK ETA DISKURTSOAK: INDARKERIAK ETA BEREIZKERIAK	24
INDARKERIEI AURRE EGITEKO PROPOSAMENAK	25
ERRONKAK ETA ETORKIZUNA	28
ONDORIOAK	31
ERAKUNDEEN ZERRENDA	33
BIBLIOGRAFIA	34



AURKEZPENA

Ekimen hau Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturiko *Sexu- eta genero-aniztasunagatiko gorroto delituak ikuspegi global* batetik proiektuaren lehen faseetan eskuratutako ikaskuntzetatik sortu da. Lehen fase horietan ikusi ahal izan denez, ez dago sexu- eta genero-aniztasunagatiko gorroto delituei buruzko esparru analitiko espezializatu bat eskain dezakeen informaziorik. Eta zenbait testuingurutan, Afrikan adibidez, gabezia hori



areagotu egiten da, eta ezjakintasun handia dago LGTBI kolektiboaren eta jasaten dituzten indarkerien inguruan.

Gogoeta teorikorako tresnak lantzen jarraitzea da txosten honen xede nagusia: testuinguru zehatzetatik abiatuz, sexu- eta genero-aniztasunagatiko gorroto delituen problematikaren gaineko hausnarketa sustatuko eta delituok salatzako zein politikoki eragiteko proposamen praktikoak bultzatuko dituzten tresnak.

Orain aurkezten dugun txosten honek pertsona LGTBIek Senegalen bizi duten egoerari buruzko argazki bat egin nahi du; zehatzago, Dakar eta Thiès zonaldean, Aldartek han lan egin baitu eta hango pertsonekin harremanetan egon baita. Txostena prestatzeko, Senegalgo kolektiboaren giza eskubideen urraketari buruzko dokumentazioak eman digun informazioa eta 2020ko otsailan egindako landa-lanean lortutakoa baliatu dugu. Aldarteko hiru ordezkari joan ziren Dakarrera eta Thiès-era, Munduko Medikuek erakundearen proiektu baten barruan, eta, bi astetan zehar, LGTBI kolektiboetako, erakundeetako eta giza eskubideen defentsarako erakundeetako ordezkariekin elkartzeko eta hitz egiteko aukera izan zuten.

Espero dugu txosten honek bidea zabaltzea Senegalen sexu- eta genero-aniztasunagatiko gorroto delituen gaiari heldu nahi dioten Gipuzkoako beste erakunde batzuei, eta, aldi berean, harremanok lagungarriak izatea sexu- eta genero-aniztasunaren defentsaren aldeko Nazioarteko Sarearen jarduera-esparrua zabaltzeko. Lan hori errazteko, Senegalgo – Dakar eta Thiès-eko– Giza Eskubideen eta LGTBIen aldeko erakundeen zerranda bat gehitu da.

AURRETIKO OHARRAK

Segurtasun arrazoiak direla eta, txosten honetan ez dira jasoko sexu- eta genero-desberdintasunaren esparruan elkarriketatutako pertsonen izenak. Alabaina, funtsezkoa iruditzen zaigunez haien testigantzei eta bizipenei protagonismo osoa ematea, haiek esandako moduan jaso dugu kontatu zigutena. Hortaz, letra etzanez azalduko dira txosten hau osatzen lagundu diguten pertsonen, erakundeen edo elkarteen hitzez hitzeko adierazpenak eta esaldiak.

Era berean, txostenaren amaieran gehitu dugun erakundeen zerrenda zuhurtzi handiz eta erakundeen lanaren segurtasuna zainduz egin da; beraz, erakunde horien eta garatzen dituzten jardueren identifikazio-daturik ez da azalduko, horietan diharduten pertsonen segurtasuna zaintze aldera.



Pertsonen eta/edo kolektiboen sexu- eta genero-aniztasunaz ari garenean, "LGTBI" izendapena erabili ohi dugu ALDARTĒn, eta horren baitan biltzen dugu sexualitate-, genero- eta korporalitate-aniztasun zabala.

Alabaina, testuan zehar "homosexualitatea" aipatuko da batzuetan Senegalgo testuinguruan, hori baita sexu- eta genero-aniztasunaz jarduterakoan Senegalēn gehienbat erabiltzen den izendapena.

Eta homosexualite hori, funtsean, gizon gayak aipatzeko erabiltzen da, agerian utziz zein ikusezinak diren emakume lesbianak, bisexualak eta transak.



ESKER-EMATEA

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da elkarrizketatutako pertsona guztiak eta txosten hau egiten modu batera edo bestera lagundu duten erakundeak aipatzea. Bihotz-bihotzez eskertu nahi dugu, beraz, honako hauen inplikazioa:

Juana Alonso, D.T. Dakar, Espainiako Enbaxada Dakar-en eta AECID (Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo), Codou Bop, Dr. Ndiaye, O.B.S., E.D., Fatou Kiraay, K.A.C. eta Hada Iris, Steiner. Helene, Munduko Medikak Bizkaia eta Senegal, KIRAAY, RENAPOC, EVA +, FAGARU, AIDES SENEGAL, AIDS, PAC-DH, KARLENE.

TESTUINGURUA: ETSAITASUNEZKOA ETA EZ SEGURUA

Hurrengo lerrootan galdera honi erantzuten saiatuko gara: **zein da Senegalgo pertsona LGTBlen egoera?** Senegalen lanean ari diren eta azken urteotan izandako bileretan solaskide izan ditugun ekintzaile LGTBlek eta GGKEek salatu dutenez, LGTBI kolektiboa **atzerakada handia jasaten ari da gai sozialetan eta eskubideen arloan**, duela ez hainbeste urte homosexualitatearekiko zegoen tolerantziak eta permisibitateak atzera egin baitu.

Senegalen sarritan azaltzen dira albisteetan pertsona LGTBlen lintxamendu-saioak, haien kontrako estigmak eta erasoak edo haiei ezarritako espetxe zigorrak; ohikoak dira halakoak “naturaren aurkako egintzak” zigortzen dituen lege xedapen bat indarrean duen herrialde hartan. Senegalgo 1965eko Zigor Kodean¹, 319 (3) artikuluan, jardun homosexuala naturaren aurkako delitutzat jotzen da. Aurrerago sakonduko dugu lege gaietan.

Alabaina, esan beharra dago Senegalek, araudi hori gorabehera, giza eskubideak babesteko nazioarteko tresna juridiko ia guztiak berretsi dituela.

Etsaitasunezko testuinguru ez segurua hori kolektiboaren kontrako hainbat jazarpenetan islatu da azken urteotan:

- 2015eko abenduaren 24an², Kaolack-eko ikastetxe batean, bikote gay batek ezkontza sinboliko bat egitea erabaki zuen, eta haien lagunak gonbidatu zituzten, herrialdeko toki askotakoak.

Legeak ez duenez halako ezkontzarik onartzen, polizia azaldu zen jaira, eta han ziren 40 pertsonetatik 11 atxilotu zituen. Biharamunean, albistea argitaratu zelarrik, dozenaka pertsona bildu ziren poliziaren kuartelaren aurrean, sumindurik, gazteak lintxatzeko asmoz. Horren ondorioz, gazteek herritik ihes egin behar izan zuten, batzuek Dakarrera eta beste batzuek atzerrira, euren bizimoduak eta lanpostuak atzean utzita.

Gertakari horien ondoren, Jamra elkarte islamiarrak –duela zenbait urtez geroztik presentzia handia du Senegalen, *lobby* homofobo baten barruan– urrats bat gehiago egitea eta homosexualitatearen aurkako lege bat sustatzea deliberatu zuen; lege hori onartu ez bazen ere, hilabeteak eman zituen agenda politikoa.

- 2016ko abuztuaren³, “naturaren aurkako egintzen” erruduntzat jo zituen zazpi gizon Dakarreko auzitegiak, eta bi urteko kartzela-zigorra ezarri zien. Zenbait egunkaririk gizon haiek nor ziren argitaratu, eta iruzkin homofobo eta iraingarriak plazaratu zituzten. Gizon horietatik sei Diourbelgo espetxe batera eraman zituzten, euren familietatik eta laguntza-sareetatik urrun. Apelazioa eta gero absolutu egin zituzten, eta 2017ko urtarrilean askatu zituzten.
- 2018ko ekainaren 8an, poliziak Gambiako bi asilo eskatzaile atxilotu zituen Dakar ekialdean, haien etxea miatu ondoren.

1 Senegalgo Zigor kodea: <https://wipolex.wipo.int/en/text/181502>

2 “Estatuko homofobia” txostena (ILGA, 2017) https://ilga.org/downloads/2017/ILGA_Homofobia_de_Estado_2017_WEB.pdf

3 “Senegal: Diskurtso harranditsuak, baina ekintzak ez datoz bat” txostena. Lantaldearen 31. saioa, 2018ko azaroa. (Amnistia Internazionala).

- 2019ko uztailaren 5ean, ostadarra – LGTBI komunitatearen ikurra– agertzen zuen kamiseta batekin jantzita agertu zen Wally Seck artista jendaurreko kontzertu batean. Kontzertuaren biharamunean, komunitate horretako kide eta defendatzaile izatea leporatu zion kantariari herrialdeko iman ezagun batek, eta Jamra elkarrekin mehatxua egin zuen esanez erakunde eta buruzagi LGTBlen izenak eta helbideak ezagutzera emango zituela. Pertsona LGTBlen aurkako marxa bat ere antolatu zen. Era berean, dei egin zuten auzoetan homosexualak identifikatu eta justiziaren aurrean salatzen edo auzoetatik botatzeko.

Txosten honetan azaltzen den moduan, elkarrizketatu ditugun eta gurekin lan egin duten kolektiboek eta pertsonak indarkeria- eta LGTBIfobia-gertakari asko kontatu dituzte: bortxaketak, eraso fisikoak, atxiloketak, enplegua galtzea...

Datu horiek guztiak agerian uzten dute **zailak izan direla azken urteak eta hilabeteak Senegalgo pertsona LGTBlentzat**. Testuingurua, oro har, etsaitasunezkoa da, eta etengabeko segurtasun eza sortzen die pertsona horiei.



A. LEGERIA: ESTATUKO HOMOFOBIA

Lehenago esan dugun bezala, nahiz eta Senegalgo gobernuak giza eskubideak babesteko nazioarteko tresna juridiko ia guztiak berretsi dituen, pertsona LGBTblenak ez dira oraindik ere errespetatzen.

Homosexualitatea 1965az gero dago zigortuta Senegalen, eta, Afrikako beste herrialde batzuetan ez bezala, Frantziatik independizatu eta gero onartu ziren sodomiaren aurkako arauak; nolana ere, Senegalgo egungo zigor kodea 40ko hamarkadako kode frantsesetik kopiatuta dago, eta handik hartu zuen frantsesek ezarritako "naturaren aurkako egintza" terminoa.

Legeria hori duela zenbait hamarkadatik indarrean dagoen arren, egiaztatu daiteke horren aplikazioa areagotu egin dela 1990–2000 urteetatik aurrera. Azken hilabeteotako gertaerek berretsi dutenez, gero eta okerrago daude pertsona LGBTblen giza eskubideak.

Pertsona LGBTblak Zigor Kodearen 319.3 artikuluan oinarrituta jazartzen dira. Honela dio aipaturiko artikulua:

"Sexu bereko pertsona batekin egintza desegoki bat edo naturaren aurkako egintza bat egiten duenari urte bat eta 5 urte arteko espetxealdia ezarriko zaio, bai eta 100.000 eta 1.500.000 frankora arteko isuna ere. Egintza 21 urtetik beherako batekin egiten bada, gehieneko zigorra ezarriko da beti".

Kontua da "naturaren aurka" zer den ez dagoela definituta, baina pertsona homosexuali bakarrik aplikatzen zaie.

Horri dagokionez iritzi askotarikoak dituzte elkarriketatutako zenbait pertsonak. Alde

batetik, adierazten dute **legeriak ez duela inoiz homosexualitatea berez zigortzen**, ez baitu berariaz eta zehatz definitzen zer diren naturaren aurkako egintzak, eta adierazten dute *artikulu horren "abusuzko irakurketa" egiten dela eta homosexualitatearen penalizazioa, LGTBI izatea, interpretazioen mende dagoela*. Beste alde batetik esaten digute **egintza bera zigortzen dela, harremanak izatea, praktika sexualak, eta ez LGTBI izatea**.

Interpretazioak interpretazio, nazioartean, sexu bereko pertsonen arteko harremanak legez kanpokotzat jotzen dituen estatutzat jotzen da Senegal, horrela jokatzeko duten NBEko 68 estatuetako bat, ILGAK (Lesbiana, Gay, Trans eta Bisexualen Nazioarteko Elkarte) egindako "Estatuko homofobia" (2019) txostenetik ondorioztatzen denez.

B. POLITIKA: BORONDATE POLITIKORIK EZ

Senegalen giza eskubideen aldeko nazioarteko akordioak berretsi diren arren, esan dezakegu inoiz ez dela benetako borondate politikorik egon Zigor Kodea indargabetzeko ezta sexu- eta genero-aniztasuna jendartean onar dadin laguntzeko ere; guztiz kontrakoa. **Kasu askotan, botere politikoa izan da zenbait sektore sozialen gorroto diskurtsoa zabaltzeko eta legitimatzeko akuilua eta bozgorailua; adibidez, erlijio sektore erradikalarena**, zeinak eragin handia baitu botere politikoan, eta, hala, pertsona LGBTblen aurkako gaitzespen-giroa sortzen lagundu du.

Senegalgo gobernuak Zigor Kodeko 319. artikulua indargabetzeko zazpi gomendio jaso zituen UPR¹ izeneko azterketaren bigarren zikloan (Belgika, Grezia, Alemania, Irlanda, Herbehereak, Suitza eta Mexikoko

1 *Universal Periodic Review*, NBEko kide diren estatuetako giza eskubideen egoera aztertzen duen Aldizkako Azterketa Unibertsala. <https://www.derechoshumanos.net/ONU/ExamenPeriodicoUniversal-EPU.htm>

gomendioak). Gobernuak gomendio guztiak baztertu zituen, eta argudiatu zuen artikulu hori **“jendaurrean egindako naturaren aurkako egintzetarako” zigor** gisa interpretatu behar dela, eta **Senegalen inor ez dela “homosexualitateagatik” espetxeratu**.

2012ko hauteskunde kanpaina, Senegalgo egungo presidente Macky Sall-ek jendaurrean gezurtatu behar izan zuen homosexualitatea despenalizatu nahi zuela, “Gayen aldeko lobbyekin” lotzen zuen kanpaina bortitz baten ostean. Hori egin izan ez balu, seguru asko ez zituen hauteskundeak irabaziko. 2013an, Barack Obama presidentea Dakarrera egin zuen bisitaldian, AEBtako kazetariak berriro galdetu zioten horretaz, eta Macky Sall-ek esaldi ospetsu hau esan zuen: “Senegalgo jendarrea ez dago prest” balizko despenalizazio horretarako.

2016ko martxoan, Konstituzioaren erreformari buruzko eztabaiden testuinguruan, presidentea kategorikoa izan zen, eta esan zuen bere agintaldian ez zela inolaz ere indargabetuko sexu bereko pertsonen arteko sexu-harremanak zigortzen dituen legea, herrialdea ez baitzegoen harreman homosexualak legeztatzeke prest. Harrezkero, askotan errepikatu du despenalizazioa ez dela gertatuko bera boterean dagoen artean eta mendebaldeko zenbait herrialderen presioak ez diola jarrera aldaraziko².

Borondate politiko falta horren azken adibidea berriki gertatu da; 2020ko otsailean Kanadako lehen ministroak Senegalera egindako bisitan, homosexualitatearen aurkako legeak indargabetzeko eskariak ari zirela, Senegalgo presidentea erantzun zuen “eroso zeudela euren legeekin”, eta nabarmendu zuen bere herrialdeak giza eskubideak errespetatu arren ez zela aldaketarik egongo homosexualitateari

buruzko legeetan, zeren, bere hitzetan, Senegalgo jendarrea, oraindik ere, ez baitago prest: “Ezin diogu Senegal eskatu homosexualitatea legeztatzeke eta bihar Gay harrotasuna antolatzeke; gure bizitzeko eta izateko modua da, ez du zerikusirik homofobiarekin”³.

Are gehiago, homosexualitatearen aurkako legeak gogortzeko aukera behin baino gehiagotan azaldu da agenda politikoan, adibidez, 2016an; urte horretan, lege-proposamen are murriztaileago bat aurkeztu zen Asanblea Nazionalean, zenbait erlijio-erakundek eta legebiltzarkidek sustaturik. Onartu izan balitz, are gogorrago kriminalizatuko litzateke LGBTI izatea, eta, azkenean proposamena gauzatu ez zen arren, gertatutakoak agerian uzten du gai hori etengabe dagoela mahai gainean.

Elkarrizketatu ditugun pertsonak adierazi dutenez, politikariek botoak irabazteko edo aurkariak kritikatzeko erabiltzen dute homofobia, eta jendaurrean aldaketak egiteko konpromisorik hartzen ez badute ere, maila pertsonalean baita hori ere egin dezakete: *Oposizioko alderdiek zein boterean daudenek sari erabiltzen duten argudio politikoa da, dela botoak irabazteko dela beste pertsona edo alderdi batzuei botoak kentzeko.*

Gainera, batzuen ustez gai hau kontu politiko hutsetik haratago doa, zeren *Senegalgo presidentea gaiaren inguruan duen jarrera aldatu nahiko balu ere, Senegalgo jendarrea ez bailitzateke ados egongo; presio handia egongo litzateke buruzagi erlijiosoen aldetik, eta matxinada bat ere egon liteke, adierazi du erlijioaren esparruko pertsona batek.*

2 Seneweb, 2016ko martxoak 16. https://www.seneweb.com/news/Politique/macky-sall-sur-l-rsquo-homosexualite-laq_n_176927.html

3 ABC news. <https://abcnews.go.com/International/wireStory/canadian-pm-trudeau-raises-gay-rights-senegal-leader-68941144>

C. JENDARTEA: GAITZESPENA

2015eko Afrobarometroaren arabera, senegaldarren % 3k bakarrik adierazten du ez litzaiokeela axola izango bizilagun homosexual bat izatea. Datu horrek erakusten du pertsona LGTBlek gizarte eremu guztietan jasaten dituztela estigmatizazioa eta diskriminazioa, eta behin eta berriro pairatzen dituztela indarkeria hitzezkoak, fisikoak eta sinbolikoak familietan, komunitatean eta zerbitzu publikoetan (hezkuntza, osasuna, etab.).

Erljioaren esparruko solaskide zenbaitek esan digutenez, oso gaizki ikusia dago, eta horren eraginez jendartetik kanpo bizi dira. Norbait homosexuala dela jakinez gero, ez zaio agur egin behar ezta jaten eman behar, eta, hil eta gero ere, debekatuta dago gure hilerrietan

ehorztean. Goi kargu erlijiosoek hitzaldiak ematen dituzte azalduz LGBTI kolektiboko pertsonak ezin direla gure jendartearen parte izan eta gaitzetsi egin behar ditugula; gai hori aurrerago aztertuko da, erlijioaren eraginarekin loturik.

Bereizkeria eta indarkeria sistematiko horiek mugatu egiten duten oinarrizko eskubideak baliatzea, hala nola hezkuntza jasotzeko eskubidea, enplegua, jabetza pribatua eta osasuna izatekoa eta ingurune osasuntsu eta seguru batean bizitzekoa.

Maila soziokulturean, **sexu- eta genero-aniztasuna negatibotzat jotzen da**. Ordezkariek feminista batek adierazi digunez, "deabrutze" bat gertatu da, identifikazio negatiboa: Deabrutu egin ditugu pedofiliarekin,



naturaren aurkako egintzekin, indarkeriekin, gaixotasunekin eta horrelakoekin loturiko irudi mediatikoen bitartez, eta, azkenean, oso irudi negatiboa sortzen duzu, benetan jakin gabe nor diren edo pertsona homosexual bat nola identifikatzen duzun.

Era berean, **mendebaldeko zerbait bailitzan erreparatzen zaio gaiari**. Prozesu globalaren barruan eta neokolonialismoaren aurkako borroka gisa, Senegal nortasun nazionala eta afrikarra bilatzeko prozesuan murgilduta dago. Gaitzespen politiko eta soziala dago kanpotik datorren orrekiko, eta egoera larriagotu egin da fanatismo erlijiosoaren ondorioz; horrek guztiak eragin zuzena eta negatiboa du LGBTBI kolektiboan.

Lankidetzaren eta diplomaziaren esparruan elkarrizketatu ditugun pertsona batzuek azaldu duten beste gaietako bat, testuinguru sozialari dagokionez, pertsona LGBTBIen kontrako jarreraren **erradikalizazioa** izan da; fundamentalismo erlijiosoak eragin handia izan du erradikalizazio horretan, nahiz eta beti ez den horrela izan. Tradizioz, gordjigüe deitutakoaren (emakume-gizona, Senegalgo tokiko hizkuntza nagusia den wolof hizkuntzan) figura egon da, gizon “trabestitu” edo “emakume itxurako” bat, sozialki onartua zena eta komunitatean rol jakin bat zuena: ospakizunak antolatu, goi mailako damei lagundu, zeremoniak animatu edo kosmetikoak banatu. Gaur egun, ordea, erasoen biktima izateko arriskua du esku-zorro bat hartuta kalera irtengo den gizonak. **Genero-binarismoa herentzia kolonialtzat hartzen da**. Badago ustea kolonialismoak bertako tradizio harekin hautsi eta binarismoa ezarri zuela.

Elkarrizketatu genuen emakume feminista batek aipatu zigun duela 30 urte Senegal ez zela herrialde homofobia, pertsona homosexualak lasai bizi zitezkeela, eta fundamentalismo erlijiosoaren gorakadari egozten dio homofobiaren hazkundera. Egia

esan, balio tradizionalak aldarazteko presioa egiten ari den “lobby islamiarraren” atzean ez dago jende asko, baina nazioartean badago interesa horrek aurrera egin dezan. Emakume haren esanetan, *lobby horrek diru asko jasotzen du beste herrialde batzuetatik, Saudi Arabiatik esaterako, eta han alde ditu komunikabide sentsazionalistak; panorama politikoa ere guztiz aldekoa du, uste baitute Estatua oso ahula dela eta harengan eragin daitekeela*. Gobernuari leporatzen diote herritarren eskubideak ez defendatzea eta, bere interes alderdikoei begira, fundamentalistei kasu egitea botoak irabazteko.

Horren guztiaren ondorioz, LGBTBI kolektiboarekiko presio soziala oso handia da, baita gobernuak eragindakoa baino erasokorragoa. Egoera hori, lasaitu beharrean, areagotzen ari da wahabismoaren¹ presentzia handiagoa delako eta jendartea gero eta gehiago erradikalizatzen ari delako gai honi dagokionez.

Afrikako kontinenteko LGBTBIfobiaren hazkunderaren adibide bat besterik ez da Senegal, eta hala salatu dute behin eta berriro giza eskubideen aldeko zenbait erakundek, hala nola Amnesty International-ek eta Human Right Watch-ek.

Etsaitasuneko testuinguru horren eraginez, feminisмотik adierazi digutenez: *Ohikoena, arruntena da pertsona homosexualek ezkutatzeko joera izatea, profil baxua agertzeko joera, eta, gainera, Afrikako ia herrialde guztietan gertatzen da hala*”. Hau da, pertsona LGBTBIek ez dute euren burua halakotzat agertzen, jasaten duten gaitzespenagatik eta erasoen eta bereizkeriaren biktima izateko beldurragatik.

1 <https://es.wikipedia.org/wiki/Wahabismo>

D. HEDABIDEAK: GORROTOAREN BOZGORAILUAK

Senegalen teknologiak eta komunikabideek aurrera egin dute, sare sozialak jendarte zabalera iristeko oso modu erraza dira, baita eragiteko ahalmen handikoak ere, eta hala, horien rola oso garrantzitsua da sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez.

Duela hamar urtetik, gutxi gora behera, hedabideek sensazionalismo handia agertu dute **persona LGTBlekiko baita gai horri buruzko edozein albiste lantzerakoan; pertsona LGTBlen jendaurreko esposizioa sustatu dute, eta homosexualitatearen irudi oso negatiboa bultzatu dute, lotu egin baitute GIBaren hedapenarekin, pedofiliarekin eta delinkuentziarekin.**

Pertsona LGTBlekiko aurreiritziak eta estereotipoak inolako kontrasterik eta iragazkirik gabe zabaltzen dira. Elkarrizketatutako pertsonak azaldu digutenez, prentsa sensazionalistak edo "horiak" **batere zehaztasunik eta zorroztasunik gabe tratatzen ditu pertsona LGTBekin lotutako albisteak, eta haien kontrako jazarpenak naturalizatzen ere hel daiteke, pertsona LGTB bat eraso baten biktima denean eraso bera justifikatzeraino.**

Are gehiago, askotan erabili izan da prentsa LGTB kolektiboaren edo pertsonen argazkiak eta izenak argitaratzeko, haien datuak zabaltzeko, eta jokabide horrek arrisku larrian jarri ditu haien osotasuna eta segurtasuna. Gay edo lesbiana izatea leporatu dieten, edo halakotzat salatzen zituzten zenbait pertsonak euren edo euren etxean kontrako eraso baten biktima izan dira hedabideren batek euren argazki edo helbidearen berri zabaldu ondoren, *outing* horren eraginez (*outing* terminoa erabiltzen da pertsona baten sexu-orientazioaren berri ematen denean hark nahi gabe eta haren baimenik gabe).

Beste alde batetik, prentsaren rola oso garrantzitsua da ikuspuntu negatibotik, ahotsa ematen dielako sexu- eta genero-aniztasunaren aurka agertzen diren pertsona eta lider erlijioso estremistei, hau da, komunitatearen aurkako **gorroto-diskurtsoak** hedabideetan (prentsa idatzian zein telebistan) **zabaltzen dituzten horien** bozgorailu bilakatzen dira.

Testuinguru horretan, **argi izpi bat piztu duen ekimen bat** nabarmendu behar dugu, adieraz baitezake zenbait komunikabideren jokamodua aldatzen ari dela: duela hiru urte, **lanerako eta elkarrizketarako mahai** bat jarri zen abian, sexu- eta genero-aniztasunarekiko aurreiritzi eta estereotipoei kontra egiteko, eta bertan parte hartu zuten zenbait lider erlijiosok, komunikabideetako ordezkari eta lider gaztek.

Mahai horren bidez, LGTBlen gaia eta kolektiboaren onospena landu dira; horri dagokionez, zenbait emaitza positibo ikusten hasi direla adierazi digute, tresna baliagarria izan baita prentsak, pixkanaka, ekin diezaion diskurtsoa aldatzeari eta pertsona LGTBekin lotutako albisteei bestelako tratamendua emateari. Lana abiatzeko, gaia jorratzen zuten prentsa-artikuluak aztertu zituzten, eta ohartu ziren ia guztiak iraingarriak zirela edo gaiza negatiboak esaten zituztela. Egindako lanari esker, gaiok tratatzeko modua zerbait aldatzen ari dela ikus daiteke, artikulu batzuetan hasiak baitira hitz errespetuzkoak, irainik gabekoak, erabiltzen, baita pertsona LGTBlei eurei ahotsa eta adierazteko tokia ematen.

Aipatu behar da aipatutako aldaketa horiek, aurrerapen positiboa izan arren, frantsesezko prentsa idatzian gertatzen ari direla, eta prentsa hori ez dago oso hedaturik eta ez du eragin handirik Senegalgo jendartearen. Elkarrizketatu ditugun pertsonak adierazi dute aldaketa horiek oihartzun handiagoa izan dezaten telebistan eta wolof hizkuntzako hedabideetan gauzatu behar direla.

Komunikabide tradizionaletatik harago eta globalizazioaren ondorioz, **sare sozialak** pisu eta eragin handia hartzen ari dira, azken urteotan, informazioa zabaltzeko orduan. Sareak badira pertsona LGBTI askorentzako ihesbidea eta kontaktu bidea, baina, batzuetan, aho biko arma izatera irits daitezke, gehiegizko esposizioa dakarren tresna bilaka baitaitezke, eta horrek oso ondorio negatiboak ditu (jazarpena...). Txostenaren hasieran azaldu den moduan, 2019ko uztailean, ustez LGBTI komunitateko kide ziren zenbait pertsona halakotzat agerrarazi zituzten bai hedabide konbentzionaletan baita sare sozialetan ere. Youtubeko zenbait kanalek eta *influencer* ezagunek Senegalgo pertsona LGBTIen identitateak agerian azaltzeari ekin zioten, pertsona haiek oso arrisku larrian jarriz¹.

E. ERLIJOA: ERRADIKALISMOAREN ERAGINA

Senegalen, biztanleriaren % 95 inguru musulmana da (sufia), eta % 4, kristaua. Senegal nazio moderatua bada ere, erlijioak pisu sozial handia du:

Hala azaldu digu esku-hartze sozialaren arloko pertsona batek: *Gogoratu behar da Senegal herrialde fededuna dela funtsean; hemen, **botere erlijiosoa oso garrantzitsua da, eta pisu handia du.** Musulmanek eta katolikoek, kristauek, bi erlijio horiek ugalketaren alde egiten dute, hau da, haien iritziz seme-alabak eduki behar dira, gizon batek eta emakume batek seme-alabak izan behar dituzte, hori da*

1 Adibideak:

Bideo honetan 7 pertsona homosexualen argazki eta bideoak azaltzen ditu youtuberrak, eta haiek ezagutzen dituzten ikusleei bideoa partekatzeko eskatzen die: <https://www.youtube.com/watch?v=gXEDA7tVeSI>
Xuna TV y Xaalat TV telebistek Diadjidiouf agertu zuten gay elkarte bateko lehendakari gisa, bai eta Senegalgo homosexualen ordezkari gisa. Bideo horiek sare sozial guztietan partekatu dira. https://www.youtube.com/watch?v=CEMqA4ha6_M
Estatu Batuetan bizi den **Tounkara influencer** senegaldar ezagunak homosexualitateaz zuen jarrera agerian utzi zuen Segenalen bizi diren zenbait homosexualen zerrenda eman zuenean. <https://www.youtube.com/watch?v=KT4dkcVovi4>





normala. Jendartearen araei jarraiki, bikote bat gizon batek eta emakume batek osatutakoa da, hori da kulturak, erlijioak, Senegalgo jendarteak onartzen dutena, hori baita normala". Eta hortik aurrera, sozialki ezarritako araua betetzen ez duena, markaturik dago: *"Kategoriaren bat arau horren barruan ez dagoenean, bazterkeria dago, jakina, ezin dutelako onartu; ez dute ondo ulertzen, ez da haien kulturaren parte".*

Herrialdearen errealtate sozial eta erlijiosoa aldatu egin da erradikalismo erlijiosoa zabaltzearen ondorioz. Duela gutxi hasi da hori gertatzen, baina eragin zuzena du pertsona LGBTblen gaitzespenean.

Duela urte batzuk, lehen esan bezala, gaur egun baino irekitasun handiagoaz bizi zen homosexualitatea senegaldarren artean. Estremismo erlijiosoaren eraginez, ordea,

gero eta gehiago errotzen ari dira aurreiritzi LGBTBlfobikoak. Muturreko islamistek mendebaldearen aurkako mezuak eta mezu homofoboak zabaltzen dituzte, testu erlijiosoen interpretazio erradikaletan oinarrituta, eta pertsona homosexualak "madarikatuztat" jotzen dituzte.

Horrek pertsona homosexualen aurkako testuinguru sozial bortitz eta baztertzaila sortzen laguntzen du, eta oso lider musulman eta kristau gutxiak agertu dute sentikortasuna LGBTBI kolektiboek bizi duten egoera zailarekiko. Esan genezake sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako jarrera ez duten gutxi horiek euren burua babesteko egiten dutela; hala adierazi zigun solaskide izan genuen imanak: *LGBTBlen gaiari dagokionez, Korana argia da, legez kanpoko pertsonak direla esan zuen profetak; ezin dugu Koranaren, Jainkoaren edo profetak*

esandakoaren aurka jo, inor ez da ausartuko. Baina haiek bazterten jarraitzen badugu, infekzioak eta gaixotasunak zabalduko ditugu. Horregatik, lagundu egin behar zaio LGBTI komunitateari, pertsona horiekin egon behar da, sentsibilizatu egin behar dira, gaixotasunak herrialdean zabal ez daitezen. Baina, lehen esan dudan moduan, gaiari osasunaren ikuspegitik heltzen badiogu, badago pertsona horiei laguntzea. Hori da bide onargarri bakarra.

Planteamendu horrek justifikatu egiten du sexu- eta genero-aniztasuna ez defendatzea giza eskubide unibertsalen auzi gisa, mendebaldeko gezur eta inposiziotzat hartzen baitira: *Erlijio musulmana homosexualitatearen guztiz aurka dago; are gehiago, idatzita dago Jainkoak zigortu egingo dituela homosexualak. Homosexualitate kasu baten berri izanez gero, hura salatu, jo, jazarri... dezan akuilatzen da jendea. Oso gaizki ikusita daude, eta, ondorioz, jendartetik kanpo bizi dira. Ikuspuntu horretatik, ez dago batere tolerantziarik kolektibo horrekiko. Ezein elkartek edo taldek ez du pertsona horiekin lan egin nahi; uko ere egiten izan diote haiekin lan egiteri.*

Elkarrizketatutako pertsona batzuk ez daude ados ikuspegi horrekin. Esaten dute jarrera hori berri samarra dela, eta, adibidez, lehen gizon homosexualak parte hartzen zutela jendea Mekatik itzultzean egiten ziren ospakizunetan, jendeak errespetatu egiten zituela eta ez zegoela arazorik. Horrez gain, adierazten dute iruditeria sozial “deabruzko” hori pertsona LGBTIei buruz sortu den irudi negatiboaren ondorio izan dela, pedofiliari, gaixotasunei eta gizartearen alderdi ilun guztiei lotutako irudia baita.

Orain arte erlijioari buruz aipatutako hori guztia oztopo larria da pertsona LGBTI askorentzat: euren burua askatasunez adierazi ahal izateko, beren erlijio-sinesmenak eta sexu-aniztasuna lasai bizi ahal izateko eta zoriontsu izateko. Esan dugun bezala, erlijioak pisu handia du Senegalgo jendartean, eta kolektiboko

pertsona asko fededunak dira. Lankide izan genituen pertsona LGBTI askok adierazi ziguten min handia eta etsipena eragiten ziela erlijioak haietaz egiten duen “deabrutze” horrek.

LGTBI KOLEKTIBOAREN EGOERA: JAZARPENA ETA IKUSEZINTASUNA

Pertsona LGBTIek jasaten duten estigmatizazio, diskriminazio eta indarkeria sistematikoak mugatu egiten die oinarrizko zenbait giza eskubideez baliatzeko aukera, hala nola hezkuntza, enplegua edo jabetza pribatua eskuratzeko eskubideak, elkartzeko eskubidea, osasuna izatekoa eta ingurune seguru eta osasuntsuan bizitzeko. Indarkeria eta bereizkeria horietako gehienak ez dira salatzen babes juridikorik ez dagoelako eta, esan zigutenez, ia seguru daudelako “salatzeak ez duela ezertarako balio”.

Nabarmendu beharreko lehen kontua da nola lantzen den LGBTIen gaia Senegalen eta Afrikako zati handi batean, osasunaren ikuspegitik eta GIBaren aurkako borrokari dagokionez. **“Populazio giltzarria”** terminoa erabili ohi da, eta horren barruan sartzen dira prostituzioan diharduten pertsonak (PS), gizonekin sexua duten gizonak (MSM), droga injektagarrien kontsumitzaileak (UDI) eta espetxeratuta dauden pertsonak; hala azaldu zigun osasun esparruko elkarrizketatuetako batek.

Gaiaren tratatzeko modu horrek kolektiboaren **ikuspegi oso mugatua sortzen lagundu du, gizonengan soilik jartzen baitu arreta, haiek soilik ikusarazten** —sexu-praktika bat hartzen du kontuan, eta ez identitate bat—; hala, emakumeak programetatik, esku-hartzeetatik, estatistiketatik, adierazleetatik eta gogoetetatik kanpo uzten dira.

LGTBI terminologiaren erabilera nahiko berria dela esan daiteke, eta oraindik ere bide luzea geratzen da desirak, gorputzak eta generoak

bizitzeko aukera anitzak ikusarazteko, Senegalgo testuinguruan iruditeria soziala gizon gayena baita.

Tradizionalki, pertsona LGBTBlen zaugarritasun-faktore handiena GIBa zela pentsatu izan da, pobreziarekin lotuta, baina kolektibo horrekin buruz buru lan egiten dutenek azaltzen dutenez ikuspegi okerra da hori, eta jasaten dituzten giza eskubideen urraketetan jarri behar da arreta nagusia. Gaiari heltzeko ikuspegi-aldaketa eragin du horrek, eta bizitzeko eskubidea, etxebizitzarako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, enplegurako eskubidea, kolektiboaren segurtasunerako eskubidea eta sexu-eskubideak defendatzearen aldeko joera sustatzen ari da.

Txosten honetako testuinguru sozialaren atalean ikusi dugunez, pertsona LGBTBlek jasaten duten indarkeriak ezkutarazten eta ikusezin gordearazten ditu.

Ikusezintasuna da pertsona LGBTBlek Dakarren bizi duten oztopo handietako bat, indarkeria eta bazterkeria jasateko arriskuan baitaude. Hala dio bata imanak ere: *Klandestinitatean bizi dira, ezkutatu egiten dira, ez dute hitz egiteko eskubiderik, ezta LGTBI kolektiboko kide direla erakusteko ere.*

Puntu honetan, nolana ere, emakume lesbien ikusezintasunaren gaia jorratzerakoan arreta eman zigun zerbait bat nabarmendu nahi dugu, gure testuinguruan “ikusgai egite” hori ulertzeko dugun moduarekin loturik. Egiaztatu ahal izan dugunez, kasu askotan, jantzeko, adierazteko eta jokatzeko moduak berak ikusgaitasun maila handia dakar, Senegalgo jendartean nagusi den estandar femeninoa kontuan hartuta.

Genero-rol femeninoei dagokienez ezarritako guztiarekin hausteak jendartea bera jartzen du zalantzatan. Esate baterako, Dakarreko

emakume batek kirol arropak janzteak edo genero-adierazpen maskulinoak ez ezkutatzek sistema heteronormatibo eta patriarkal nagusi eta inposatuarekin berarekin haustea dakar. Hala, lankide izan ditugun eta elkarrizketatu ditugun zenbait emakumerengan hauteman dugunez, ohikoagoa da genero-adierazpen maskulinoak izatea lesbiana gisa argi eta garbi definitzea baino, azken hori zaila baita gaur egun.

Alabaina, hain kontrako testuinguru batean bizitzeak, non eragile ugari indarkeria eta gaitzespena bultzatzen duten, oso zaila egiten du nor bere burua onartzea, eta are zailagoa desira argi eta garbi bizitzeko urratsa ematea, hots, jendaurrean hala agertzea, gertuko inguruneetan esatea (familia, unibertsitatea, auzoa, lantokia...), bai eta kolektiboki antolatzea ere.

Pertsona LGBTBlek abian jartzen duten biziraupen-estrategia nagusia² ezkutzea da, “normal itxurak egitea”; batzuk ezkondu ere egiten dira, “estalki” gisa, eta bizitza bikoitza dute. Hori arazo handia da, **ikusezintasunera kondenatzen baititu**, horrek dakarren guztiarekin. Elkarrizketatu ditugun pertsonetako batzuek esan zuten homosexuala izatea ez dela arazo, baldin eta jendaurrean azaltzen ez baduzu eta inork jakiten ez badu; horrek agerian uzten du inposaturiko ikusezintasuna dela.

Elkarrizketatutako pertsonak behin eta berriz azaldu zuten gaietako bat da nola ikusarazi nor bere burua halako testuinguru LGBTBfobiko batean, hori egiteak zenbait arrisku baitakar berarekin: indarkeria, erasoak, bazterkeria, jendartearen eta familiaren gaitzespena... Senegalen, sexualitatea zerbait intimotzat hartzen da, eta, oro har, ez da jendaurrean hitz egiten sexu-harremanei edo desirari buruz. Afektu-adierazpenak eremu pribatura baztertzeko dira, eta homosexualitate hitza ezin

2 *Sexu-joeragatiko eta genero identitateagatiko gorroto-delituei aurre egiteko estrategiak* liburua, ALDARTE 2018 <https://kooperaldarte.org/wp-content/uploads/2018/10/INT-Aldarte-Castellano-Digital-1.pdf>

da ezta esan ere. Hala ere, pertsona LGTBlek badakite ordaintzen duten prezio oso altu bat ere badela ikusezintasuna, osotasunean eta askatasunean bizitzea eragozten baitie.

Testuinguruaren atalean adierazi den bezala, pertsona LGTBlek ikusgaitasunari dagokionez duten zailtasun handienetako bat da hedabideek LGTBfobia sustatzen dutela, eta horrek dituen ondorio zuzenak. Hedabide batek kolektibo LGTBI bateko norbaiten izena edo haiek biltzen diren gune batekoa argitaratzea arrisku larria da haien segurtasunerako eta osotasunerako, eta beldur eta larritasun handiz bizi dute egoera hori.

Jazarpenari eta indarkeriari ihes egiteko LGTBlek erabiltzen duten beste estrategia bat herrialde barruko eta herrialdeen arteko **desplazamendua (mugikortasun geografikoa)** da.

Elkarrizketa ditugun emakumeetako batek etxetik ihes egin behar izan zuen, baina, uste izan arren hiri handiek nork bere sexualitatea bizitzeko aukera gehiago ematen dutela, hark adierazi zuen, berari, landa-eremu batera joateak, Thiés-era, hirian baino askatasun handiagoz bizitzeko aukera eman ziola: *Nbourren nagoanean askoz askatasun handiagoa dut, nahi dudanean atera naiteke, arazorik gabe, baina Dakarren ezin nuen hori egin.* Esan zigunez, herri txikiagoa izanik jendeak gutxiago begiratzen dio.

Era berean, Senegalen asiloa eskatu duen lesbiana bikote bat elkarrizketatzeko aukera izan genuen. Euren jatorrizko herrialdea, Boli Kosta, baino testuinguru irekiagoa izango zela uste zuten iritsi zirenean, eta *tranpa batean harrapatuta* sentitu zirela azaldu ziguten, zeren euren jatorrizko herrialdean, gaitzetsiak izan arren gaiari buruz hitz egin zezaketen, eta Senegalen imajinaezina da hori. Paradoxikoa bada ere, euren kasuan Senegal zubia bihurtu da sexu- eta genero-aniztasunagatik asiloa eskatzeko. Senegaletik alde egiteko asmoa

dute, eta, nazioarteko babes-mekanismoen bidez, aske bizi ahal izango dute herrialde batera joatea.

Testuingurua benetan kontrakoa izan arren, Senegalgo LGTBlen bizipena eta jarrera euren eskubideen aldeko borrokan jarraitzea da, eta, azaltzen dutenez, **amets egin dezakete**, eta badaude askatasun-zirikitu txiki batzuk. Adibidez, LGTBlen arteko ezkontza sinbolikoak egiten dira, eta zeremonia horietan euren desira ospatzen dute. Gainera, esaten dute diskoteketan eta jende gaztea ibiltzen den lekuetan harremanak izan ditzaketela eta beste pertsona batzuk ezagut ditzaketela, eta hori aurrerapausoa dela.

ASOZIAZIONISMOA

Senegalen, LGTBlen mugimendu asoziatiboak bilakaera oso esanguratsua izan du, batez ere Dakar hiriburua inguruan.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da zenbait erakunde sortu direla hiesaren eta bazterketa sozialaren aurkako borrokaren babespean, eta, pixkanaka, pertsona LGTBlek osatutako erakunde mistoak eta ez-mistoak sortzen hasi dira.

Erakunde horietako gehienak RENAPOCen biltzen dira, populazio ahulenarekin lan egiten duten 28 erakundek osatutako sare nazionalan. Sarea 2014an sortu zen, ANCS-Osasunaren aldeko Komunitateen Aliantza Nazionalaren (Senegalgo jendarte zibilaren erakundea) laguntzari esker. Sare apolitikoa da, laikoa eta irabazi asmorik gabekoa. Haren eginkizun nagusia “populazioa giltzarriak” osatutako elkarten jarduerak koordinatzea da, bereizkeria ezabatzeko eta giza eskubideak, batez ere osasunerakoa, benetan gauzatzeko estrategia nazionala eraikitzeko xedez.


RENAPOC sarearen barruan zenbait kolektibo LGTBI daude, batez ere gizonek osatutakoak.

Pertsona LGBTBlen aurkako indarkeria haien kolektiboetara hedatzen da. Hauek dira euren lana egiteko dituzten arazo nagusiak:

- **Elkarte bat legezatzeko zailtasuna:** izapideen kostu ekonomiko handia, gehiegizko burokrazia eta pertsona LGBTBlen erakundeak izateagatik oztupoak.
- **Lokalik eza:** erakunde bakar batek du biltzeko, elkartzeko eta jarduerak gauzatu ahal izateko espazio propio bat. laz, zegoen lokal bakarra eraso zuten, eta erakundeak eta kideek herrialdetik ihes egin behar izan zuten, jazarpenaren beldur. **Pentsaezina da agerikoa izango den LGBTBlen erakunde bat egotea; hau da, lokal batekin, telefono-zenbaki publiko batekin edo harremanetarako webgune batekin.** Horrek izugarri zailtzen du elkartearen lana, pertsona LGBTBlak haietara hur-

biltzea eragozten du (eta hala, sare sozialen bidez sozializatzen behartzen ditu) eta oso zaila egiten du sarean lan egitea.

- **Espazio seguruak aurkitzeko zailtasuna:** Senegalgo pertsona LGBTBlentzat oso garrantzitsua da halako espazioak topatzea, non libre izango diren harremanak lotzeko eta euren burua adierazteko, zeren egunerokoan ezkutuan eta "bizitza bikoitza" eginez bizi behar baitute. Esate baterako, emakumeekin egindako lan-tailer batean, gutako batek argi esan zuen lesbiana zela, halakotzat jo zuen bere burua, eta horrek halako urduritasuna eta larritasuna eragin zuen non berehala itxi zituzten ateak eta leihoak; agerian uzten du horrek nolako beldurra eragiten dien identifikatzaileak, baita espazio seguruetan daudenean ere.





- **Estatuak haien jardueretan nahastea:** Estatuak jakin egin nahi du zer egiten ari diren, zer hitz egiten duten biltzen direnean, nortzuk joaten diren topaketetara, non eta noiz biltzen diren... Askotan, erakundeen barruan gertatzen denari buruzko informazioa filtratzen da, eta hori kolektiboaren garapenerako oztopoa da, arriskua, jakina, eta erakundeetan dauden pertsonak beldur dira.

EMAKUME LESBIANAK ETA BISEXUALAK: SEXUALITATEAREN UKAZIOA

Testu honetan, pertsona LGBTBlen egoerari buruz ari garelarik barne hartzen ditugu emaku-

me lesbianak eta bisexualak ere, baina uste dugu garrantzitsua dela atal bat berariaz haiei eskaintzea, zeren, txosten honetan agertu dugunez -eta ohikoa da testuinguru askotanhaiek baitira sarrien ahanzten direnak. Honoko hauek dira emakumeek dituzten oztopoak euren sexualitatea onar dadin:

- **Euren sexualitatearen ukazioa.** Elkarrizketatu ditugun emakumeetako batek honela azaldu zue: *homofobiaz gain, badago are gogorragoa den zerbait: emakumeen sexualitatearen ukazioa, eta, ondorioz, hauteman ere ez da egiten emakume lesbianak badaudela. "Ikusezinak" dira jendartearen begietara, eta, hala, bi emakume kalean elkarrekin azaltzen direnean, inork ez du pentsatzen lesbianak izan daitezkeenik; hori baliatzen dute haietako askok*

espazio batzuetan elkarrekiko mai-tasuna agertzeko, "lagunak garela pentsatuko baitute".

- **Ikusgaitasunaren eta ikusezintasuna-ren** kontua da beste gai nagusietako bat euren sexualitateari buruzko haus-narketetan, eztabaidetan eta bizipene-tan. Elkarrizketatutako emakumeetako batek adierazi zuenez, *berak ez du hori dena familiarekin eta lagunekin parte-katzen, baina erakundean, elkartean eta kolektiboa, bada, ez da ezer gertat-zen*"; hau da, testuinguruaren eta bera dagoen ingurunearen arabera azalduko da, edo ez, lesbiana gisa.

Besteek lesbiana gisa identifikatzen dituztenean sortzen da arazoa; gainera, itxura maskulinoa izatea **zigortzen dela** adierazten dute. Ziur daude gizon gayak emakume lesbianak edo bisexualak baino hobeto ikusita daudela.

- **Norberaren onarpenerako erreferen-terik eza:** helburu eta xede gisa aipatzen dute ikusgaitasuna, baina uste dute lehenik eta behin norberaren onarpena lortu behar dela. Pixkanaka egin behar dela zehazten dute, hurbileko inguru-neetatik hasita, eta han ekin behar dio-tela ezarritakoarekin eta haiengandik espero denarekin hausteari. Arestian ai-patu bezala, haustura horiek "zigortu" egiten dira.
- **Hedabideak eta poliziak:** adierazten digutenez atxiloketa arbitrarioak jasa-ten dituzte genero-adierazpen masku-linoa izateagatik, eta hedabideek ape-nas ematen dute gertakari horien berri. Kexu dira hedabideek "deabrutu" egi-ten dituztelako eta haien aurkako go-rroto-diskurtsoak zabaltzen dituztelako.
- **LGTBI kolektiboaren barruan zapal-durik** sentitzea: espazio propioak sort-zeko eta **nortasun kolektiboa** lantzeko

beharra aldarrikatzen dute, azken hori funtsezko elementua baita nor bere buruaren estimua, onarpena eta ahal-duntzea indartzeko. Identitate kolektibo horren indarra honelako hitzekin defi-nitzen zuten: **partekatzeko espazioa, konfiantza, ezagutza, konplizitatea, babesa, laguntza, lidergoa garatzea.** *Premiazkoena taldea indartzea da, ko-lektiboa ahalduntzea, euren hitzak pisai izan dezan, euren iritzia aske eta lasai agertzeko modua izan dezaten.*

Talde bateko kide izatea, bizipenak beste emakume batzuekin partekatu ahal izatea oso garrantzitsua da gatazka-egoerei aurre egiteko eta egoera horiei kolektiboki heltzeko: *Hemen, Senegalen, garrantzitsua zaigu gure moduko beste emakume batzuk aurkitzea eta haiekin hitz egin ahal izatea. Elkartearen lana garrantzitsua da, beste pertsona batzuk ezagutu eta sentitzen dugunaz hitz egin dezakegulako, eta horrek hasieran baino hobeto sentiarazten gaitu. Beste emakume batek esan zigun bizi izan zuen gatazka-egoera batean lagundu egin ziola Kiraay emakumeen erakundearekin harremanetan jartzeak.*

LGTBI kolektiboaren ikusgaitasunari dagokio-nez, beste ikuspegi bat agertu zuen elkarri-zketatu genuen eta kolektibo horietako baten kide den emakume batek: *Agian, ikusgaitasuna ez da, gaur egun, Senegalgo LGTBI komunita-tearen lehentasuna; indartsuago izan nahi dute, elkar ezagutu, prestatu... Ikusgaitasuna gero-go etorriko da. Beldur handiaz bizi dira, ez dira jabetzen zein indartsuak diren. Euren estrate-giak garatzen hasi behar dute ikusgai bilakatze-ko; formazio saioetara joaten diren neska oso maskulinoak iraultza bat egiten ari dira, jada, janzen diren moduan janzte hutsarekin eta munduaren aurrean jarrera hori hartzearekin. Jabetu egin behar dira egiten ari diren iraultzaz; hori ere ikusgaitasuna da.*

Azkenik, emakumeek adierazi digute badirela espazio batzuk non libre sentitzen diren. Hala,

diskoteka batzuetan eroso sentitzen dira, eta diren bezala ager daitezke. Futbol taldeak ere aipatzen dituzte, haien arteko topaketa- eta harreman-gune gisa. Esan zutenez, oraintsura arte, emakumeak ez ziren euren artean ezkontzen ezta modu sinbolikoan ere, eta orain, berriz, hori egiten hasi dira.

PERTSONA LGTBLEKIKO AURREIRITZIAK

Kolektiboekin egindako lan-tailerretan, pertsona LGTBlekiko Dakarren dauden aurreiritzi eta estereotipoen gaia jorratu zen; gehienbat, inguruneak erabiltzen dituen erreferentzia gutxiesgarriak eta negatiboak aipatu zituzten. Hona horien bilduma bat:

<p>LESBIANEI buruzko aurreiritziak/ estereotipoak</p>	<p>Marimutilak, gizonezko janzkera, basatia, lelelaplus (iraina), zakil on bat falta du, ez gizon ez emakume, halakorik ez dago/ ikusezinak, <i>Guiwine</i> (iraina da, baina berenganatzen ari dira, gaztelaniazko bollera hitzarekin egin den moduan).</p>
<p>GAYEI buruzko aurreiritziak/ estereotipoak</p>	<p><i>Gordjiguene</i> (wolofezko iraina, ez gizon ez emakume), anormala, pedea (marikoia), maritxua, koldarra, akabatu egin behar dira, pertsona madarikatuak, luma.</p>
<p>Pertsona TRANSEI buruzko aurreiritziak/ estereotipoak</p>	<p>Eroak, gaixoak, inork ez daki zer diren...</p>
<p>BISEXUALEI buruzko aurreiritziak/ estereotipoak</p>	<p>Ez gizon ez emakume, gaitza ekartzen dute, ez dakite zer diren, ez bata ez bestea.</p>



Ikus daitekeenez, pertsona LGBTBiei buruzko iruditeria soziala aurreiritzi negatiboz beteta dago; uste izaten da homosexualitatea *deabruaren kontua dela*, edo *zurien kontua*, heredatu edo kutsatu egiten den gaixotasun bat. Elkarriketatu ditugun emakumeetako batek esan zuen *madarikatuak bailiran* tratatzen dituztela, *lotsaizuna direla familiarentzat* eta *Jainkoak zigortu egin duela lesbiana izateagatik*.

Errealitate hori aldatzeko, komunitate-mailan lan egitea ezinbestekoa dela adierazi dute; sentsibilizazio-lana "behetik" egin, etorkizuneko erronkei begira. Aurrerago azalduko da, zehatzago, zein diren aurrean dituzten erronka horiek.

GORROTOZKO DELITUAK ETA DISKURTSOAK: INDARKERIAK ETA BEREIZKERIAK

Atal honetan, pertsona LGBTBlek Dakarren eta Thièsen jasaten dituzten indarkeriei eta

diskriminazioei erreparatuko diegu. Jasotako testigantzen eta egindako landa-lanaren bidez, jasaten dituzten indarkeria-mailak eta LGBTBfobia-moduak ezagutu ditugu. Gurearen antzeko testuinguruetan, gaur egun, oso zaila zaigu indarkeria horiek ulertzea.

Atal honi "Gorrotozko delituak eta diskurtsoak" izena eman diogun arren, badakigu gorrotodelituaren figura kontzeptu juridikoa dela (nazioartean honela definitzen da: arau penaletan delitu gisa tipifikatuta dagoena), baina, hala ere, bestelako sexualitate, genero eta korporalitateak dituzten pertsonak pairatzen dituzten indarkeria askotarikoen sinonimo gisa erabiliko dugu.

Honela adierazi zuen elkarrizketatutako emakumeetako batek:

Hemen, Senegalen, ez daukagu "gorroto-delitu" termino hori. Konplikatuena da Senegalgo testuingururako. Oro har, erasoaz hitz egiten da. Indarkeriaz. Izan ere, gertaera zehatzak, materialak, eraso fisikoak edo ahozkoak dira.

Bildutako lekukotasunek honako hauen berri eman digute: gayen jabetzakoak diren negozioen kontrako erasoak auzokoen aldetik; ezkontza behartuak, familiak alaba lesbiana dela jakiten duenean; laneko nagusiarik norbait gay dela jakinaraztea haren nahiaren kontra; hiletan batetik norbait bidaltzea gay izateagatik; emakumeen jai batean partaideak atxilotzea eta hamaika egunez espetxean gordetzea; polizia atxilotuta arbitrarioak egitea lesbiana gisa identifikatze hutsagatik. Esaterako, 2018an, lantaldeko emakume bati dokumentazioa eskatu zioten, eta, erakutsi zuen arren, atxilotu egin zuten, eta polizia-etxera iristean agenteak esan zion lesbiana izateagatik atxilotu zuela, baina nagusiak azalpenak emateko aukera eman zion. Azkenean, libre utzi zuten, eta polizia-buruak esan zion arazorik sortzen ez bazuen, ez zutela atxilotuko.

Elkarrizketatu genuen emakume bikote batek honakoa adierazi zuen: *Seme-alaba bana daukagu, eta kendu egin zizkiguten bikotea ginela jakin zutenean. Nik bortxaketa baten ondoren izan nuen semea; esaten zidaten gizon baten modura jokatzeko nuela eta erakutsiko zidatela haiek zer zen gizon bat. Bortxatu egin ninduten. Haurdu geratu nintzen, eta semea izan nuen, baina ez nuen lanik, ezta hartaz arduratzeko behar beste baliabiderik ere.*

Haietako batek honako hau gehitu zuen: *Semea behartutako ezkontza baten ondorioz izan nuen, eta ihes egin nuen. Eliza batean giltzapetu ninduten bi hilabetez, homosexualitatea sendatzen saiatzeko. Jazarri egin gintuzten eta oso modu bortitzean tratatu; ia hil gintuzten. Bikotekideak hau kontatu zuen: *Nire homosexualitatearen berri izan zutenean, ahizpa baten etxera joan behar izan nuen bizitzera; neba txikiak ez zuen ezer esaten, baina neba nagusiak ez zuen onartzen, eta esaten zidan madarikatua nintzela eta familiarik gertatzen zitzaizkion gaitz guztien erruduna nintzela. Sarritan izaten genituen liskarrak horregatik, eta ihes egin nuen, ateratzen ari nintzen emakumearekin bizitzera**

joan nintzen. Neba irainka hasi zitzaigun, borrokaldi bortitzak izaten ziren, baita labanekin ere; azkenean, jasanezina zen egoera. Nik ez nuen nahi nebak nire bizitza zuzentzea, ezta zer egin behar nuen esatea ere. Azken borrokaldian, auzo osoa etorri zen gu banatzera. Anaiak gasolina erositako zuen gu erretzeko. Alde egitea erabaki genuen, ezin genuen baldintza haietan bizitzen jarraitu. Diskriminatu egiten gintuzten, familiak ez ninduen errespetatzen eta ez zegoen hitz egiteko modurik; alde egitea genuen irtenbiderik onena.

Lan-esparrua izaten da aurkako beste eremu bat pertsona LGBTlentzat: *Gure herrialdean ezinezkoa da homosexuala izatea eta lan egitea; homosexuala, lesbiana zarela jakin ezker, edozein enpresatan, madarikatuak garela esan eta kalera botako gintuzten, azalpen gehiagorik gabe.*

INDARKERIEI AURRE EGITEKO PROPOSAMENAK

Bizitzaren esparru guztietan gertatzen diren indarkeria-egoera horien aurrean, galdera sortzen da: zer egin daiteke horiei aurre egiteko?, nola borroka daiteke LGBTl fobiaren aurka testuinguru horretan? Kolektiboekin egindako elkarrizketa eta tailerretan zenbait ideia eta lan-proposamen zehaztu dira, **indarkeriari aurre egiteko baliabideei** dagokienez.

- Lehenik eta behin, esan behar da **ez** dela planteatzen pertsona LGBTlenganako indarkeriei **esparru judizialek** heltzea. Pertzepzio orokorra da LGBTl fobiagatik salaketek dutela inolako ibilbiderik, ezta "arrakastarako" aukerarik ere: *Neska bat kanpaina mediatiko baten biktima izan zen, eta kanpaina horren ondorioz jende asko mobilizatu zen eta etxera joan zitzaizkion, atea hautsi eta barruan zuen guztia puskatu zioten... Neskak ez*

zuen homofobiagatiko salaketarik egin, ezin zuen agertu lesbiana zela. Epailak lesbiana zela jakinez gero, kasua ez zen inora iritsiko.

Dakarreko testuinguruan, eskubideak bermatzen dituen sistema judizialaren kontzepzioa ez da planteatzen LGTBfobiari dagokionez: Neskak horientzat, sistema edo bide judiziala ez da, agian, hain garrantzitsua; neska horietako askok bizitza salbatzea lehenesten dute, egoera hori gainditzea, hain indarkeria-egoera larrietara irits baitaitezke non bizitza bera jokoan izango duten. Askok premia larriagoak dituzte; esaterako, haientzat segurua ez den, arriskutsua den eremu horretatik alde egitea. Neska horiek oso bakarrik daude; testuingurua aldatu, eta alde egin nahi dute, halako egoerak saihesteko.

- **Indartze kolektiboa** da positibotzat eta jarraitu beharreko bidezkat jotzen duten estrategietako bat: Gaur egun elkarteak eta sareak indartzen ari dira, osasunaz, arlo psikosozialaz eta arlo juridikoaz arduratu ahal izateko. Bortxaketa kasuak salatzeko dispositibo bat jarri dute abian, salaketa gauzatu eta kasuaren defentsa egin ahal izateko. Esan behar da oso zaila izan zela dispositibo hori abiatzea. Pertsona LGTBentzat bakarrik erabili nahi genuen dispositiboa, baina zailtasun gehiegi zegoen hala eginez gero, eta, azkenean, "populazio giltzarri" osoari ireki behar izan genion.
- Aspaldi ez dela, **LGTBifobia kasuak jasotzeko** baliabide bat sortu da Senegalen, Bartzelonako Udalak finantzaturik. Webgune bat da, "Divas" izenekoa, eta badaude, halaber, mugikorretarako aplikazio bat eta datuak biltzen dituen pertsona talde

bat. Oso garrantzitsua da hori pertsona LGTBlek bizi duten indarkeria-egoeraren benetako argazkia izateko eta gehiago eragin eta salatu ahal izateko: Baina, gazteei dagokienez, erakundearen barruan oso zaila da. Horregatik bildu dira indarkeria eta bereizkeria kasuei buruzko datuak, nazioartean defentsa egin ahal izateko.

- Elkarrean lana eta larrietan laguntzeko norbanakoen arteko "ahoz ahokoa" **uztartzea** tresna oso garrantzitsua da, baita testuinguru horretarako egokia, indarkeria-egoera oso larrietatik babesteko eta ihes egiteko gune bilakatzen baitira. Honela kontatu zigun elkarriketatu genuen emakumeetako batek: Egoera zailak bizi dituzten edo indarkerien biktimen diren neska gazte homosexualen kasuan, batzuek nire telefonoa edo helbide elektronikoa ematen diete, nirekin zuzenean harremanetan jar daitezten. Orduan, lehenik eta behin, lehen areta egiten dut; neskarekin elkarriketa egiten dut, eta galdetzen diot zer gertatu den, zer egoeratan dagoen, zer premia dituen eta zer egin nahi duen, abokatu bat behar duen, herrialdetik irten behar duen, pixka bat ulertzeko zein den bere egoera eta zer behar dituen, eta, ondoren, harremanetan jartzen dut dauden baliabideekin.
- **Laguntza ekonomikoa** eskaintzen duten elkarte edo erakundeak egotea, hala nola Front Line eta Urgent Action Found. *Front Line*-k bi mila dolar inguruko laguntza bat du; oso gutxi da, baina bigarren erakundearena hamar mila dolareraino iristen da. Beraz, kontua da neska hori dauden baliabideekin harremanetan jartzea, egoerari nolabaiteko irtenbide

bat eman ahal izateko, eta, gero, erakundearen eta neskaren artean kudeatzen dute laguntza eta haren egoeraren jarraipena.

Elkarrizketatu genituen emakumeetako bik – asiloa eskatu zuten Senegalen– funts horiek jaso zituzten: *Front Line-k lagundu egiten digu, badugu hiru hilabeterako laguntza, eta horri esker bizi gara*". Eta, jada ikusi dugunez, beste herrialde batera alde egitea da, zenbait kasutan, indarkeriari ihes egiteko modu bakarra: *Badaude Malin arazoak izan zituzten hiru gazte, eta Kanadara eta Herbehereetara alde egiteko aukera izan zuten.*

Elkarrizketatutako emakumeetako batek beste erakunde bati buruz hitz egin digu, kasu honetan ez nazioartekoa, baizik eta tokikoa: *Amsher. Afrikako erakunde bat da,*

giza eskubideen alde borrokatzen da hemen, Afrikan, eta estrategia bat jarri du martxan indarkeriak, erasoak eta diskriminazioak pairatzen dituztenentzat, eta laguntza juridikoa eskaintzen dute. Lehen, arazoak zituztenean, ez zegoen abokaturik, zerbait legezkoa, LGTB kolektiboa benetan defendatzera ausartuko zena. Baina Amsherrekin laguntza juridikoak lagundu egiten die arazo bat dagoenean. Atzean segurtasuna izateak aurrera egiteko aukera ematen du. Orain badakite aliatuak badituztela.





ERRONKAK ETA ETORKIZUNA

Testuinguru horretan eta errealtate horren aurrean, kolektiboetara eta emakume lesbiana eta bisexualei galdetu diegu zein diren, haien ustez, etorkizuneko erronkak eta ikuspegiak. Jarraian azalduko dugu zer jotzen duten lehentasunezkoetatik, hau da, zein gai nagusi jorratu beharko lirakeen epe labur eta ertainean:

A) LGTBI KOLEKTIBOETARA DAGOKIENEZ

1. **Maila guztietako sentsibilizazioa eta prestakuntza**, indarkeria eragiten duten **aurreiritziei eta estereotipoetara aurka egiteko**. Alor sozial askotan lan-espazioak sortzearen garrantzia nabarmentzen dute:

- **Polizietan, buruzagi erlijiosoen** baita

Estatuko ordezkarietan ere lan egiten dugu. Pertsona horietatik ikasketak bat da, prestakuntza bat. Kiraay elkarteak arduratzen da LGTBI kolektiboaren jardueren esparruan, hau da, Amsher, Kiraay, kolektiboaren parte diren elkarte guztiak. LGTBI kolektiboak zer den erakusten diete buruzagi erlijiosoen eta Estatuko ordezkarietara, eta horrek ere indarkeria maila jaitsarazi du.

- **Osasun-bitartekarietan** lan egiten dugu. **Hezkuntzan, elkarrekin, familietan**. Uste dut diskriminazioak eta bortxaketak jaitzi daitezkeela lan horrekin. Eta familia-bitartekaritza ere egiten dute, familiaren barruan arazo bat dagoenean. Lan hori ondo egitea lortzen badugu, baliteke gauzak aldaraztea, batez ere, baliteke hemen, Senegalen, dagoen homofobiaren ideia aldatzen lortzea.

- **Sentsibilizazioa eskoletan** landu daiteke, adibidez, edo komunitateetan, baina horren inpaktua ezin da oraindik ezin neurtu, geroago neurtu ahal izango da. Baita familietan ere, konturatzen baikara, askotan, familian, amak baduela semearen orientazioaren, aniztasunaren berri, baina beldur dela horretaz hitz egiteko, eta hala ere, semea babesten du.

- Lehenik eta behin, **buruzagi erlijiosoekin egin beharko litzateke sentsibilizazio** lan handia, haiek baitira Jainkoaren bidea transmititzen dutenak. Haien ikuspegiak, hitzek, gauzak esateko duten moduak badu inpaktua. Eragin handia dute.

- Aztertu behar da nola erabil ditzakegun **hedabideak** errealitate hori aldarazteko eta kolektiboarekiko onarpenaren/tolerantziaren alde lan egiteko.

- **Gazteen esparrua** funtsezkotzat jotzen dute, sentsibilizazioari dagokionez: Ohartzen gara sexu-aniztasunaren gaiak eragiten diela gazteei. Eta uste dugu haiek ondo sentituko diren elkarrizketagune seguru bat sortzen badugu gai horrekiko interesa agertuko luketela eta horretaz hitz egingo luketela, gorrotorik gabe.

2. LGTBifobiaren benetako datuak lortu behar dira, salaketak egiteko eta politikoki eragin ahal izateko.

Indarkeriekin eta diskriminazioekin lotutako datuak biltzea litzateke helburua: Benetakoak, agerikoak eta nabarmenak izan diren indarkeria horien datuak, errealitatetik abiatuta jarduera-estrategiak pentsatu ahal izateko.

Nabarmendu dutenez, beharrezkoa da: **Politikoki eragitea**, nazioarteko erakundeen webguneetan, indarkeria-kasu

horien berri emateko, zigorrik gabe gera ez daitezen eta Senegalgo gobernuak herritar guztien eskubideak eta segurtasuna bermatzen ez dituela jakinarazteko.

- ### 3. LGTBI kolektiboa indartu behar da:
- Uste dute gaitasunak eta ahalmenak landu eta indartu behar direla eta kolektiboak bultzatu eta sustatu behar direla: Egoera hobetzeko, hemen, Senegalen, lehenik eta behin LGTBI komunitatearen pentsamoldea aldatu beharko litzateke, ez baitute uste helburu komun bat, geure eskubideak defendatzeko borroka bat izan dezakegunik. Hau da, hitz egiten dute, jarduten dute, baina ez dute helburu argirik gure komunitatearen eskubideak onar daitezen lortzeko.

Ildo berean, honakoa esan dute: Hasteko, emakume taldeak indartu nahi dituzte. Hori da lehendabizikoa, emakumeen taldeekin lan egitea. Senegalen, emakumeen taldeak bakartuta daude, eta, beraz, ez dute sendotze ekintzen onurarik jasotzen". "Gaitasunak indartzea, pertsonen LGTBen estimua sendotu, harro egon daitezen eurek diren horretaz. Autoestimua, ahalduntzea...

Sendotze hori badagokie, halaber, hobeto antolatzeari eta erakundeen finantzaketa-gaitasunari: *lana profesionalizatu*, zailtasunak dituztelako ekintzak eta jarduerak gauzatzeko baliabide ekonomikoak lortzeko eta kolektiboen lana, gehienbat, borondatezkoa delako.

- ### 4. Lege aldaketak:
- gai korapilatsua dela ohartzen diren arren, uste dute garrantzi handikoa dela Zigor Kodean homosexualitatea zigorturik ez egotea: *Legeari dagokionez, ikusi behar da nola aldatu legea eta artikulua, gauzak aldatu ahal izateko.*

Garrantzitsua da legeak aldatzea, jendearen pentsamoldea aldarazteko.

Homosexualitatea zigortzen duten legeak baldin badaude, jendea horietan oinarritzen da, eta homofobia justifikatzen du.

Uste dut hori dela gauzetako bat; niretzat ere oso garrantzitsua da legeak aldatzea, neure esperientziak erakutsi dit hori. Lehtetasunak normalizazioa eta estigmatizazioaren kontra lan egitea direla uste badut ere, nire gurasoek (AEB) oso jarrera kontserbadorea zuten legeak aldatu aurretik, baina, aldatu zirenean, dena ondo zegoela ikusi zuten”.

B) EMAKUME LESBIANEI ETA BISEXUALEI DAGOKIENEZ

- Emakume lesbianeiei eta bisexualei dagokienez, honako hauekin dute zerikusia lehtetasuneko lan ildoek: **norbera sendotu, nor bere buruaren onospena landu, haiekiko aurreiritzi eta estereotipoen aurka borrokatu** eta kolektiboaren premia orokorrez harago dauden zenbait behar eta eskakizun zehatz. *Emakumeen gaitasunak sendotu. Zenbat eta gehiago ezagutu zer eskubide dituzten, orduan eta hobeto. Garrantzitsua da. Borrokatu aurretik, onartu egin behar dugu zer garen, non jartzen garen, zertarako borrokatzen garen jakin, baita zure herrialdearen legeak eta Konstituzioa ezagutu ere. Eta jakin nola egingo duzun, zer eskubide dituzun eta zer betebehar.*
- Emakumeek honako gai hauek jorratzeko beharra planteatzen dute: **bikoteen barruko indarkeria; sexu-hezkuntzari eta sexu-osasunari buruzko lana**, aurreiritziei eta emakumeen autonomia sexuala zalantzan jartzeari aurre egiteko; **nola iritsi emakume lesbianengana** (kolektiboetan ez daudenengana),

haien beharrak ezagutu eta sexu-orientaziorako eskubidea aldarrikatzeko.

- Halaber, **autodefentsan lanean jarraitzeko eskatzen dute, indarkeria-egoerak saihesteko tresna baita.** Elkarrizketatutako emakume batek hau esan zigun: *Indarkeria zertxobait apaldu da. Zergatik? Bada, laguntza lan handia egiten dugulako, batez ere emakumeekin eta neskekin, leku publikoak saihets ditzaten, baina baita norbere buruaren estimua areagotzeko lan egiten dugulako ere.*
- Azkenik, ez diote uko egin nahi **ikusgaitasunaren** alde lan egiteari, hori ere badute jomugan Dakarreko eta Thièseko emakume lesbianeiek eta bisexualek: *beldurrik gabe parte hartu ahal izatea jardueretan eta beldurrik gabe joan ahal izatea manifestazioetara.*

Elkarrizketatu ditugun pertsona eta kolektibo batzuen ustez, sexu- eta genero-aniztasunaren alde egiten ari den lan hori hasi da emaitzak ekartzen, eta, oso modu apalean bada ere, ikus daiteke aldatzen ari dela jendartearen zigorgabetasun-sentsazioa pertsona LGBTblen aurkako indarkeria erabiltzeari dagokionez: *LGTBI komunitateen kontrako indarkeriak benetan urritu dira, jendeak badakielako, gero eta gehiago, pertsona LGTBI bat erasoz gero poliziarenean amaituko duzula, horrek badituela ondorioak. Jendarteak badaki, oso ondo jakin ere, eta oso ondo ulertzen dute.*

CONSTRUIRE DES RELATIONS SAINES

- CONFIANCE, ÉVITER LA JALOUSIE
CONFIANCE VS JALOUSIE
- + COMMUNICATION ← ÉCOUTER
SE PARLER
RESPECTER
- NON AU PEUR D'ÊTRE SEULE
- COMPLICITÉ : SE COMPRENDRE SANS SE PARLER
- conseil?
- FRANCHISE "Si je suis avec toi
c'est parce que je veux
être avec toi"
- ÉGALITÉ
- FAIRE PREUVE D'EMPATHIE
- COMPRÉHENSION
- RESPECTER L'ESPACES DE


ONDORIOAK

- LGBTI kolektiboa atzerakada handia jasaten ari da gai sozialetan eta eskubideen arloan. Azken urteak eta hilabeteak zailak izan dira Senegalgo pertsona LGBTIentzat. Testuinguru orokorra haien aurkakoa da, eta etengabeko segurtasunik eza sortzen die.
- Botere politikoa, kasu askotan, zenbait sektore sozialen gorroto diskurtsoa zabaltzeko eta legitimatzeko akuilua eta bozgorailua izan da –hala nola erlijio sektore erradikalarena–, eta pertsona LGBTIen aurkako gaitzespen giroa sortzen lagundu du.
- Sexu- eta genero-aniztasuna oso negatibotzat jotzen da; sozialki, homosexualitatea GIBaren, pedofiliaren eta delinkuentziaren hedapenarekin identifikatu da; "deabrutzea" eragin erlijioso erradikalizatuenaren ondorio izan da, eta homosexualitatea "mendebaldeko" zer bat bailitzan ikusten da, kanpotik datorren zer bat, inposatutako zer bat. Azken gai horrek gaitzespen handia sortzen du, Senegal murgilduta baitago nortasun nazionala eta afrikarra bilatzeko prozesuan, prozesu globalaren barruan eta neokolonialismoaren aurkako borroka gisa, eta horrek eragin zuzena eta negatiboa du LGBTI kolektiboan, estigmatizazioa, jazarpena eta indarkeria baitakartza, maila guztietan.

- Azken 10 bat urteotan, pertsona LGBTblekin zerikusia zuen guztiaren tratamendu sentsazionalistak pertsona horiek jendaurrean agerrarazi ditu, eta homosexualitatearen irudi oso negatiboa sustatu du, baita LGBTBI kolektiboarekiko aurreiritziak eta estereotipoak zabaldu ere.
- Sare sozialek pisu eta eragin handia dute, bi zentzutan. Alde batetik, hedapen eta irismen sozial handiko tresna dira, eta horrek segurtasun falta handia sortzen die pertsona LGBTblei, gehiegizko esposizio negatiboagatik; beste alde batetik, ordea, harremanak sortzeko eta sozializatzeko moduetako bat dira.
- Erliijoak pisu handia du Senegalgo jendartearen, eta, beraz, erlijiorearen esparruan sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako jarrerak erradikalizatzeak eragin oso kaltegarria du, pertsona LGBTblei gaitzespen sozial handia sortzen eta eragiten baitu, eta gaitzespen hori indarkeria bilakatzen da.
- Pertsona LGBTblek jasaten duten estigmatizazio, diskriminazio eta indarkeria sistematikoak mugatu egiten die oinarrizko zenbait giza eskubideez baliatzeko aukera, hala nola hezkuntza, enplegua edo jabetza pribatua eskuratzeko eskubideak, elkartzeko eskubidea, osasuna izatekoa eta ingurune seguru eta osasuntsuan bizitzekoa. Indarkeria eta bereizkeria horietako gehienak ez dira salatzen babes juridikorik ez dagoelako eta, esan zigutenez, ia seguru daudelako "salatzeak ez duela ezertarako balio".
- Hain kontrako testuinguru batean bizitzeak, non eragile ugari indarkeria eta gaitzespena bultzatzen duten, asko zailtzen du norberaren izatea onartzea, eta are zailagoa da sexu-orientazioa modu irekian bizitzeko urratsa ematea, jendaurrean hala agertzea, gertuko inguruneetan esatea (familia, unibertsitatea, auzoa, lana), baita kolektiboki antolatzea ere.
- Aurkako testuinguru horrek sortzen duen eragina ez da guztiz berdina gizonengan edo emakumeengan. Senegalgo jendartearen sexismoak berekin dakarren iruditeria kolektiboak ez du ia kontuan hartzen emakumeak desiratzen dituzten emakumeak egon daitezkeela.
- LGBTblei errealitatea, gehienbat, maskulinoa da; lesbianismoa oso ikusezina da, eta, beraz, Senegalen, sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko borroken erronketako bat da emakume lesbianen eta bisexualen nortasun kolektiboa lantzea eta indartzea.
- Gay diren gizonen aldean, emakume lesbianek eta bisexualak familiaren eta jendartearen kontrol zorrotza jasaten dute. Indarkeria oso espezifikoak pairatzen dituzte, hala nola sendatzeko bortxaketak edo seme-alaben zaintza kentzea.
- Sexu- eta genero-aniztasunaren alde egiten den lana hasi da emaitzak ekartzen, eta, oso modu apalean bada ere, ikus daiteke aldatzen ari dela jendartearen zigorgabetasun-sentsazioa pertsona LGBTblei aurkako indarkeria erabiltzeari dagokionez.

LGTBIEN GIZA ESKUBIDEEN ALDE DIHARDUTEN ERAKUNDEEN ZERRENDA

- RENAPOC
- KIRAAY
- EVA +
- FAGARU
- AIDES-SENEGAL
- AIDS
- PAC-DH
- KARLENE
- ADAMA
- AND LIGGEY
- PRUDENCE
- SOURIRES DES FEMMES
- XAM XAMLE
- YEWU YWTW



BIBLIOGRAFIA

“Homofobia de Estado” txostena (ILGA 2017, 2019)

<https://ilga.org/downloads/2017/ILGA_Homofobia_de_Estado_2017_WEB.pdf>

<https://ilga.org/downloads/ILGA_World_Homofobia_de_Estado_Actualizacion_Panorama_global_Legislacion_diciembre_2019.pdf>

“Senegal: Diskurtso harranditsuak, baina ekintzak ez datoz bat” txostena. Lantaldearen 31. saioa, 2018ko azaroa. (Amnistia Internazionala).

“Sexu-joeragatiko eta genero identitateagatiko gorroto-delituei aurre egiteko estrategiak” liburua, ALDARTE 2018.

<https://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/INVESTIGACION%20DELITOS%20ODIO_EUS_Digital-FINAL.pdf>

Zenbait egile: “Yogyakartako printzipioak. Giza eskubideen nazioarteko legeria sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko gaietan aplikatzeko printzipioak”. ALDARTE. Bilbo, 2010.

<<https://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/principiosYogyEusk.pdf>>

Zenbait egile: Senegalgo prentsa

LGBTQIen egoerari buruzko hiru hilez behingo txostena, Senegal (2019ko ekaina-abuztua) PAR DEFENDER

Giza eskubideak Senegalen, 2018 txostena (AEBtako Estatu Departamentua)